

Ezbeharra



Aireportuan zaude, Madriletik heldu berria, zure seme-alabak eta emaztea ikusteko gogo handiz. Zirimiritsu eta lainotsu egon arren, zuri egun eguzkitsua iruditzen zaizu. Bidaia sano ona eduki duzu eta aurpegi distiratsuarekin zaude. Aireportuko eskailerako lehen maila zapaltzean, laban eta hegan egiten duzu aldi berean. Behearekin bat egiterakoan mundu guztia zugantantz jiratu da. Angi guztiak itzali dira. Anbulantziaren soinua entzuten duzu. Furgoneta barrura sartzen zaituzte.

Ospitalera sartu bezain laster, erradiografiak egiten dizkizute. Bi ukondoak apurtuta dituzu. Kriston mina sentitzen duzu. Ebakuntza bat egin behar dizutela diotsu medikuak. Ez daukazu ezertarako gogorik. Ziztada bat nabaritzen duzu eskuan, begiak ixten zaizkizu, gaua egiten zaizu.

Dirudienez, dena ondo atera da. Horma berdeak, sabai zuria, gizon-emakumezkoak berdez, zuriz, arrosaz jantzita. Aste batez egon beharko duzu ingresatuta. Zure emaztea atetik sartzen ikusten duzunean, zenbat maite duzun eta zein gutxitan esan diozun datorkizu burura. Kepa eta Izaskun ikusten dituzunean, tipula moztearen sentsazioa sentitzen duzu.

Igeltsatuta zaude, beso bat mugitu ezin izatea, larria da, baina biak mugitu ezin izateak, biderkatu ez, laukoiztu egiten du arazoa. Lehenengo gaua 18 ordukoa iruditzen zaizu, baina azkenean lokartu egiten zara. Itzartzean, zure emazteak gosaria eman behar dizu ahora, baberoa ipini behar dizu, laranja ur erdia barrura eta beste erdia kanpora. Egoera guztiz arraroa da.